



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2008-11-27**

VIURTEA 1.570.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Jaurlaritzarekin akordioa sinatu dute etxebizitza babestuak sustatzeko

**TOLOSA** Voith-Gorostidi eremuan 148 Babes Ofizialeko etxebizitza egingo dituzte, eta horietatik 44 sozialak

**ORIA-ARAXES** Atzo egin zuten 16 etxebizitza sozialen zozketa; 350 euro ordainduko dute alokairua, batez beste 3



Atzo, Leidor aretoan egin zuten Oria-Araxes eremuko 16 etxebizitza sozialen zozketa. I. TERRADILLOS

## Carlos Peñak Sella ibaia jaitsi du, zortzigarren aldiz, igerian

**TOLOSA** Lehengo marka hobetu zuen, 12 minutu gutxiago behar izan baitzituen amaitzeko 5

**Bihar hasiko dira adin guztiei zuzenduriko Kultur Astearekin**

**LARRAUL** Bertso bazkaria eta azoka izango dira lehenengo asteburuan nagusi 6

**Tai-Chi ikastaro irekia antolatu dute asteburu honetarako kiroldagian**

**LEITZA** Patxi Marta munduko txapeldunak eskainiko du etzi eta igandean 7



Tolosako Beldurrezko Zinema Maratoiaren eskutik  
Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren Asteak  
aurten argitaraturiko

**Japoniako animazio zinema izeneko liburuak zozketan!**



**irabazleak:**

- Imanol Odriozola
- Maialen Abaigar
- Izaskun Gonzalez
- Agustina Godoy
- Koldo Jauregi
- Luisa Ruiz
- Lorena Goyogana
- Eneko Galarraga
- Malentxo Arrospide
- Manoli Arteaga
- Miren Arburua
- Susana Segurola
- Xabier Irazusta



# Illegalizazioak, genero indarkeria eta Lapurdi plazaren izendapena, plenoan



EAJ eta EAren zinegotziak bildu ziren Osoko Bilkuraren lehen zatian; ondoren gehitu ziren, PP eta PSE-EEko ordezkariak. HITZA

**Politika** » Herenegun egindako Osoko Bilkuran, ezker abertzaleak aurkeztutako mozioa izan zen lehen eztabaidagai.

## ESTI EZEIZA

Herenegun, Ohiko Osoko Bilkura egin zuen Tolosako Udalak. Bertan hamaika gai ezberdin eztabaidatu zituzten.

Bilkuraren lehen puntua, 2008ko azaroaren 7ko Osoko Bilkurako akta onartzea izan zen, eta honi, aho batez, baiezkua ematea erabaki zuten. Ondoren, hilaren 4tik 20ra bitarteko alkatetza dekretuen berri eman zieten.

**Illegalizazioen inguruko mozioa** Bilkuran aztertutako hirugarren gaia ondorengoa izan zen: EAE-ANV, EHAK eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiaren aurrean, ezker abertzaleak aurkeztutako mozioa. Honekin lotuta, Lasa eta Zabalen oroinenez urriaren 18an deituta zegoen manifestazioak jazoetako istiluak eta Anoetan, asteburuan izandako atxiloketak salatu zituzten.

Puntu honetara iristean, Hektor



Hainbat herritarrek Lasa eta Zabalen argazkiak erakutsi zituzten. E. EZEIZA

Espin hautetsi independentistak mozioa irakurri zuen, eta udalategiko Batzar Aretoran bildu ziren herritarrek Joxi eta Joxeanen irudiak erakutsi zituzten.

Moziari erantzunaz, Udaltzako beste testu bat irakurri zuen, kide guztiak onartu zutelarik. Bertan bat egiten zuten ezker abertzaleak proposatutako zenbait adierazpenekin. Honen aurrean, Espinek adierazi zuen pozten zela Udaltzako agertutako jarrerakin, baina «hitzen eta ekintzen artean kontrastesana» zegoela leporatu zien. Izan ere, bere esanetan, «he-

rritarrek aukeratuak izan baginen ere, eskubide hori zapaltzen jarraitzen duzue, eta sei urte hauetan, ez gaituzue, inongo batzorde eta bileterata gonbidatu». Bestalde, euren kabuz batzordeetara joan direntan, «irainduak» sentitu direla gaineratu zuen, eta beraiek esandakoa aktetan ez direla jaso agertu zuten.

Andoni Iturzaeta zinegotziak, Eusko Alkartasunaren izenean hitz egin zuen, argi utziz, beraiek ez diotela inorri «eserlekurik lapurtu». Honekin Espinek egindako «zinegotzi lapurren» aipuari erantzun nahi izan zien. Bere esanetan, «ezker abertzaleak hausnarketa egin beharko luke, zergatik herri batzuetan legala den eta beste batzuetan ez jakiteko». Dena den, hau esan ondoren, argitu zuen, Eusko Alkartasuna Alderdiaren Legearen aurka dagoela.

Azkenik, Jokin Bildarratz alkatetik zenbait azalpen eman zituen, eta onartu zuen, agian kontraesanak egon daitezkeela hitzen eta ekintzen artean, baina politikan, hitzek ere balio handia dutela nabarmendu zuen. Bestetik, baikor agertu zen zenbait atalatan adostasuna agertu zutelako ezker aber-

tzaleak nahiz EAJk. Amaitzeko, Espinek mahai baten inguruan bildu eta hitz egiteko zabaldu zion gonbita onartzen zutela adierazi zuen. Baina baldintza errespetatuz gero: herritarrek galerarik ez izatea eta egun, Udaltzako osatzen duten 17 zinegotzietan errespetoa izatea.

## Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna

Herenegun, azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna zen. Honen harira, Eudelek deitutako ekimenarekin bat egin zuen Tolosako Udalak. Indarkeria matxistak eragindako gaitz sozialaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa adierazi zuen Udalak. Bestalde, egun horretarako antolatuta zuden ekintzak babestu zituzten eta adierazpen instituzionala irakurtzearekin batera, aldeko jarrera adierazi zuten.

Udaltzako osatzen duten alderdiek berdintasun sailak egindako lana txalotu zuten. Onintza Lasak, Berdintasunerako zinegotziak azaldu zuen, orain arte egindako lanak bi ardatz dituela: alde batetik sarea, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %80a biltzen duten herriek osatutakoa. Bestetik, partaidetza. «Urtean zehar teknikari ugari biltzen baitira berdintasunaren inguruan lan egiteko», gaineratu zuen Lasak.

Puntu honetan ere, bere ekarpena egin nahi izan zuen ezker abertzaleak, eta «itxurakeriaz» jo zuten Udalak emandako pausoak. Eider Elduairen hautetsi independentistak adierazi zuen, «administrazioaren aldetik, emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartzeko martxan dauden lege, protokolo, orden eta akordio inter-instituzionalak ez dira praktikan jartzen ari, edota antzua dira». Honen

aurrean, emakumeek pairatzen duten egiturazko indarkeriari aurre egiteko, egungo harreman erdua eta jendartearen egituraketa errotrik eraldatu behar dagoela aldarrikatu zuten.

Gaiaren inguruko gogoeta aurkeztu ostean, udaletxeko Batzar Aretoran elkartuta zuden herritarrek zutitu, eta denak Triangulora bideratu ziren, Bilgune Feministak deitutako elkarretaratzearekin bat egiteko. Hauek irten ostean, ordura arte, kanpoan egon ziren PSE-EEko bi zinegotziak eta PP-koa aretorasartu ziren.

## Lapurdi plaza

Bilkuraren jarraituz, hurrengo gaia, Belaten dagoen plaza berri baten izendapena onartzearena izan zen. Rondilla kalea eta Belateko pasealekua batzen dituen, eta egun, eraikitzen ari diren plazak

## Lapurdi izenako du Rondilla kalea eta Belate pasealekua lotzen dituen plaza berriak

## Indarkeria matxistak eragindako gaitz sozialaren aurka aritzeko konpromisoa berretsi dute

Lapurdi izenako du. Euskara batzordeak egin zuen izenaren proposamena. Argudiatuz, gainontzeko Euskal Herriko probintziak erabili direla etorbideak eta kaleak izendatzeko, eta azken hau bakarririk falta dela.

Ainhua Etxeberria da Euskara eta Hezkuntza batzordeko buru, eta berak agertu zuenez, Udaleko beste kideen artean deialdi bat banatu zuten deituraren inguruan proposamenak jasotzeko, baina erantzunik jaso ez zuten, hau aukeratu zuten. Beste aukera batekin ere zalantza izan zituzten, baina Lapurdirena egokiagoa izan zuten. Udaleko ordezkari guztiak aho batez onartu zuten Lapurdi izena.

## Taxi tarifen berrikustea

Urtero bezala, Taxi zerbitzuaren inguruko tarifen berrikustea egin zuten herenegun. Bertan erabaki zuten Gipuzkoako Taxien Elkarrekin lutzatutako proposamena onartzea. Halaber, uztaileko KPIaren igoera aplikatuko zaie tarifei. Bestalde, Bildarratzek aipatu zuen, Tolosaldea Garatzenekin hitz egingo zutela eskualdeko zerbitzu lehen bailehen martxan jartzeko.

## Alhondigako aparkalekuak

Osoko Bilkuran hizketagai izan zen azken puntua Alhondigako garajea izan zen. Izan ere, hasiera batean aparkaleku guztiak irekiak izan behar bazuten ere, azkenean, %26 itxiak izango direla erabaki dute. Hori dela eta, baldintza pleguak aldatu dituzte. Honekin, erabiltzaileen eskaerak erantzun nahi izan dituzte.

**OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN  
LIDERRA DEN ENPRESAK  
NEGOZIO BERRITZAILA ETA  
KONTRASTATUAREKIN  
LEITZAKO HEDAPENERAKO  
BEREZKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI  
DUTEN PERTSONEKIN  
HARREMANETAN JARRI NAHI DU  
ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK  
Harremanetarako telefona: 607219256 / 607 575018**

# Udalak etxebizitza babestuak egiteko hitzarmena sinatu du Jauraritzarekin

**Hirigintza** » Voith-Gorostidi eremuan, 148 etxebizitza egingo dituzte, horietatik 44 alokairu sozialekoak.

**INIGO TERRADILLOS**

Tolosako Udalak eta Eusko Jauraritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hitzarmena sinatu zuten atzo, «babestutako etxebizitza multzo handi bat sustatu eta herria biziberritze» helburuz. Horren arabera, esaterako, Voith-Gorostidiko Babes Ofizialeko etxebizitzetan, alokairu sozialerako bideratuko dituzte etxebizitza batzuk, eta bestalde, herriaren biziberritzeari dagokionez, Alde Zaharren zati bat birgaituko dute.

Voith-Gorostidiko etxebizitzentzen kasuan, 1 zenbakia duen partzelan, 148 etxebizitza eraikiko dituzte, eta horietatik 104 izango dira babes ofizialekoak, eta 44 etxebizitza sozialak. Lurrari dagokionez, Tolosako Udalak Eusko Jauraritzari utzi dio, 44 etxebizitza sozial egin ditzan, ondoren alokairu babestuan, Alokabideren bidez esleitzeko. Bestalde, Amenabar enpresari esleitu zaio etxebizitza horien gutzietan eraikitzea, eta horretarako Jauraritzaren laguntza izango du. Ondoren, Jauraritzak erosi eta kudeatuko ditu. Atzoko ekitaldian



Javier Madrazo eta Jokin Bildarratz. I. TERRADILLOS

adierazi zuten arabera, «etxebizitza hauen obrak hasik dira dagokieneko».

**Laskorain-Goikoa eta Olarrain** Birpartzelazio proiektua behinbetiko onartzen dutenean, Udalak eta Jauraritzak «hirigintza lurrari egokienak» identifikatuko dituzte, Jauraritzak erosi eta etxebizitza babestua sustatzeko. Laskorain-Goikoa kasua, finkatu gabeko hiri-lurzorua gainera jarduna da, eta bertan, 1.066 etxebizitza sustatzeko aukera dago. Horietatik %70 izango dira babesekoak (%35 Babes Ofizialekoak eta %35 tasatuak).

Olarraingo kasua, berriz, jardun mistokoa da, hau da, bizitegi-era-

bilerakoa eta hirugarren sektoreko erabilerakoa. Bertan, 180 etxebizitza eraikitzea aurreikusiko dute, horietatik %80 babesekoak (%55 Babes Ofizialekoak, eta %22,5 tasatuak).

## Herriaren birgaitzea

Bestalde, atzo sinatu zuten hitzarmenaren ondorioz, Eusko Jauraritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hirigune historikoaren monumentu multzoaren barruan burutuko den obra publikoaren finantzaketan ekonomiko-laguntzeko asmoa adierazi du. Finantziazio hori area urbanizatzeko izango da batik bat.

Hain zuzen ere, ondorengoak izango dira jardunaren helburuak:

Oria ibaiaren alboko ibaiterteko pasealeku bat berreskuratzea, hirigune historikoa oinezkoentzako bihurtzea alboko areako aparkalekuekin ibilgailuen lotura egikaritata, eta bideratzeko-horma bat egitea Santa Maria elizatik Arrameleko zubiraino.

## Plan Orokorra onartzearen zain

Atzoko ekitaldian «akordioaren garrantzia» azpimarratu zuen Jokin Bildarratz Tolosako alkateak. «Garai zail hauetan denon artean gehiago egin behar dugu, horregatik horrelako akordioak ezinbestekoak dira». Era berean, uztailean Udaltzatza Osoko Bilkuran behin behineko izaeraz onartu zuen Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorra ere izan zuen mintzagai. Hau Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeari bidali dute eta behin betiko onartzearen zain dago.

Javier Madrazo Eusko Jauraritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak bere aldetik, Tolosako Udaltzaile lan eskertu zuten, «babestutako etxebizitzak egitea ahalbidetzen baita horrela». Halaber, Tolosan 1.000 lagun inguru daudela Etxebizitza izena eman da azaldu zuten, eta hauei erantzuna ematen saiatuko direla; «bereiziki alokairuari eman nahi diogu garrantzia».

## L Laburrak

### Mahai-ingurua izango da gaur Helduen Ezkuntzan

**GENERO INDARKERIA** • Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira Udalak antolatuko ekitaldien baitan, gaur, mahai-ingurua izango da HHI-EPAKo egoitzan, 16:00etan. Batetik, Miriam Herbonek *Zertaz ari gara emakumeenganako indarkeriari buruz ari garenean?* galderari erantzuna ematen saiatuko da. Bestetik, Xabier Odriozolak *Zer egin dezakegu gizonezkoek berdintasunaren alde?* gaia landuko du.

### 'Garraxi Ixilak' antzezlanaren bihar Leidor aretoan

**KULTURA** • *Garraxi Ixilak* antzezlanaren izango da bihar ikusgai, Leidorren, bihar, 22:00etan, *Galtzaundi* eta *TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK* antolatuko dute, eta doan da.

### 'World Kafe' ekimena izango da bihar Zerkausion

**GIZARTEA** • Baketik erakunde antolatuta, bihar *World Kafe* ekimena izango da, Zerkausion, 19:00etan. 688 68 14 66 zenbakira deitu behar da, bertan parte hartzeko.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

<b>OSASUNA.</b>	
<b>Alegialdea.</b> Osasun z.: 943 653212	
<b>Anoeta-Alkiza-Hernalde.</b>	
Medikua: 943 65 23 39	
<b>Asteasu.</b> Medikua: 943 692423	
<b>Baliarrain.</b> Medikua: 943 889003	
<b>Berastegi-Elduain.</b>	
Medikua: 943 683361	
<b>Bidegoian.</b> Medikua: 943 681134	
<b>Ibarralde.</b> Osasun etxea: 943 672411	
<b>Ikaztegieta.</b> Medikua: 943 653329	
<b>Irura.</b> Osasun zentroa: 943 690720	
<b>Leitza.</b> Osasun z.: 948 510800	
<b>Orendain.</b> Medikua: 943 655595	
<b>Orexa.</b> Medikua: 943 682228	
<b>Tolosa.</b>	
<b>Anbulatorioa, larrialdia:</b> 943 461111	
<b>San Esteban:</b> 943 006800	
<b>Gernikako arbola:</b> 943 006900	
<b>Amarozko dispen:</b> 943 672637	
<b>Asuncion klinika:</b> 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)	
<b>DYA:</b> 943 672536	
<b>Gurutze Gorria:</b> 943 674888	
<b>Villabona.</b> Anbulat.: 943 006970	
<b>Zizurkil.</b> Aiztondo zerb.: 943 693930	
<b>GARRAIOAK.</b>	
<b>Renfe:</b> 902 24 02 02	
<b>Donostiako autobusa:</b> 943 361740	
<b>Tolosaldeko bus:</b> 943 650621	
<b>Leitzarango autob.:</b> 948 221015	
<b>Taxia:</b> 943 670420	
<b>Taxia (Leitza):</b> 608 873016	
<b>BESTERIK.</b>	
<b>Ertzaintza:</b> 943 538820	
<b>Tolosa-Udaltzaingoa:</b> 943 675858	
<b>Tolargi:</b> 943 650016	
<b>Iurrarrendi egoitza:</b> 943 670325	
<b>Tolosa gasa:</b> 943 675320	
<b>Alkoholiko anonimoak:</b> 943 248474	

# Oria-Araxes-eko etxebizitzentzen zozketa

**Etxebizitzak** » 16 etxebizitza sozialen zozketa egin zuten; 350 euro ordainduko dute batez beste, alokairua.

**I. TERRADILLOS**

Atzokoan albiste pozgarria zuten herritar batzuek, izan ere, Oriaraxes eremuan alokairu sozialeko etxebizitzentzen zozketa egin zuten. Eremitan 44 etxebizitza dira Babes Ofizialekoak, eta 16, berriz, sozialak edo alokairukoak.

Etxebizitza hauek eraikuntza fasean daude eta honetan, eta 2009rako amaizteko espero dute. 65 m<sup>2</sup>tik 90 m<sup>2</sup>ra bitarteko etxebizitzak dira. 15 etxebizitzak hiru logela, sukalde, egongela-jantokia, bainugela eta aseoa dute. Egokitutako etxebizitza batek bi logela, bainugela egokitu eta sukalde-egongela-jantokia du. Etxebizitza gutzietan trasteleku eta garaje-plaza bana dute. Batez beste 350 euro ordaindu beharko dute hilean, zozketan etxebizitza egokitu zaienak. Egokitutako etxebizitzentzen kasu-



Jende ugari izan zen atzokoan, Leidorren egin zuten zozketan. I. TERRADILLOS

suan, ezgaituentzako bat zegoen egokitu. Bereiztu dute, baita ere, familia unitatearen arabera, eta adinaren arabera, hau da, 25 urtetik beherako kasua ere bereiztu dute, zozketa egiteko orduan.

## Etxebizitzentzen esleipena

Zozketa honetan parte hartu ahal izateko, hainbat baldintza bete behar zaizkien, eta horien artean, 3.000 eta 21.000 euro arteko diru-

sarrerak izatea, eta etxebizitzarik jabetzan ez izatea zeuden. Hala, atzo zozketan azaldu zutenaren arabera, «orain, lehen zozketa honen ondorioz, etxebizitza horiek herritar batzuei egokitu zaizkie, baina guk berriro euren gaur egungo datuak begiratuko ditugu, ea aldatetarik egon den jakiteko; aldatu ez bada egon, bera izango da etxebizitza egokitu zaiona, bestela, irtxaron zerrendara joko

dugu», azaldu zuten. Itxaron zerrenda nola osatuta geratu den ere azaldu zuten, eta argiago ikusteko, zerrenda osoa [www.etxebide.info](http://www.etxebide.info) web orrian izango dela ikusgai ere aipatu zuten. eta guk. Testua lehen parrafoa testua lehen parrafoa.

Poza nabaria zen batzuegan, euren izena ez zuten zozketan, noski. Besteek hurrengo zozketaren zain geratu beharko dute.



Villabonan Euskal Herriak Euskaraz elkarteak emandako prentsurrekoak. HITZA

## Euskararen aldeko pauso berria, abenduaren 13an

**Euskara** » Euskal Herrian Euskaraz elkarteak BECera joateko autobusa antolatu du Villabonatik; txartelak okindegietan daude salgai.

### ERREDAKZIOA

Euskal Herrian Euskaraz-ek Villabonan aurrera pauso bat emateko garaia dela adierazi zuen, *Euskaraz bai* lelopean. Abenduaren 13an BECen ekitaldi bat izango da eta euskaldunei egindako gonbita da. BECen izango da ekitaldi hau eta autobusa izango da Villabonatik. Parte hartu ahal izateko herriko okindegi ezberdinetara zuzendu behar da, bertan izena emanez; Larrea, Amasa, Kixubi, Labezain eta Ogi goxo dira zehazki okindegiak. Abenduaren laura arte dago epea zabalik. Autobusez ez doanak [www.nierebanoa.com](http://www.nierebanoa.com) atarian eskatu beharko du gonbidapena.

### Pauso bat haratago

Badira 10 urte Kontseilua sortu zela; orduko leloa hau zen: *Bai euskarari*. Bada, hamar urte igaro os-

tean, pauso bat haratago emateko beharrikusirik *Euskaraz bai!* lelopean aurkezten dute hurrengo erronka.

*Euskaraz bai*-ren nondik norakoak hauek izango lirarteke: euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Batzar Nagusiak oinarriko irakurketa hau egin du, euskararen egungo egoeraz: «Egindako lanari esker euskal herriarren euskararen aldeko jarretarak» azken hamarkadetan «bilakaera baikorra izan duela ukaezina da. Gehiengo zabalaren jarrera euskararen aldekoa da», euskararen zabalkundea eta normalizazioa lortzearen aldekoa.

Baina «euskararen garapena nahi baino mantsuago ari da gertatzen». Euskal Herriko biztanleen laurdena euskalduna da. Azken hamarkadetan egindako ahaleginak euskaldunen kopurua handitzea ekarri badu ere, «ez da izan euskararen normalizazioa bermatzeko adinakoa». Erabileran ere hazkundera gertatu den arren, «egoera normalizatuak izango lukeen erabilera mailaren azpitik gaude oraindik».

«Euskaldunok euskaraz bizi-tzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta». Gainera, «nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak», azaldu zuten.

Honela, euskalgintzak elkarlan-jarduera aberasgarria eraiki du. Elkarlan-giro horren emaitza «oparua da euskarari emandako bultzada».

Normalizazioa iristeko bidean, oinarriko ildo hauek jarraituko dituzte: euskararen berreskurapen-prozesua azkartzea, hau da, egun Euskal Herrian euskara ez dakitenek ikastea, eta bere erabilera esparru berrietan handitzea ahalik eta eperik laburrenean. «Ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen jarraitu behar dugu».

«Hori guztia egiteko lan politiko-instituzionala eta lan soziala bideratu behar dira». Erakunde instituzionalak, eragile politikoei, ekonomikoek eta sozialek, norbakoek eta euskalgintzak norabide berean lan egitea «ezinbestekoa da, guztion arteko lankidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna».

## Etzi Arabar Errioxara antolatutako bidaiaren ardoa dastatuko dute

**Bedaio** » Bestalde, gaur 20:30ean bilera egingo dute Bedaioko II. Azokan parte hartuko dutenei xehetasunak emateko.

Ondoren Bedaiora itzuliko dira kantari. Guztia 60 euroren truke izango da, hau da; bidaiaria, hamaiketako, bisita eta bazkaria.

### Bedaioko produktuen azoka abenduaren 14an

Bestalde, hasiak dira abenduaren 14an egiteko asmoa den Bedaioko II. Azoka prestatzen. Hau dela eta, deialdia zabaldu nahi diete bertan parte hartu nahi duten bedaiotar guztiei. Horretarako, gaur bilduko dira Artubi elkartearen 20:30etik aurrera jendearen ideiak eta asmoak biltzeko asmotan. «Gure nahia Bedaioko baserriar bakoitzak zer bait eramatea litzateke».

Aukera zabala da: barazki, fruitu, landare, etxean prestatutako jaki, opil eta gozoak, animaliak, baserriko tresna eta lanabesak, garai batean erabiltzen ziren eta ia ahaztuta dauzkagun gauzak, altzari zaharrak... Gaitzen erreak, taloak, barruna, eta abar dastatzeko aukera ere izango da.

### ERREDAKZIOA

Artubi elkarteak etzi Arabar Errioxara bidaiara antolatu du. Joateko interesa duenak oraindik ere izena eman dezake Artubi elkartearen bertan, edo 666 618 558 telefono zenbakira deituta. Bihar arratsaldera arte dago aukera. Dagoeneko 25 bat lagunek eman dute izena.

San Vicente de la Sonsierra herriko Peciña ardo upategira egingo dute bisita. 09:30ean Bedaioko plazatik aterako da autobusa eta Alegiatik 10:00etan. Upategira egingo dute lehen bisita eta bertan hamaiketako emango diete. Ondoren, Biasteri herria ezagutuko dute. Bazkaldu aurretik, ardoa nola egiten ikasi eta bertan bazkaria egingo dute.



San Vicente de la Sonsierrako Peciña upategira joango dira. HITZA

## Laburrak

### Emakumeenganako indarkeria salatu dute

**IKAZTEGIETAN** » Herenegun, azaroaren 25ean, hain zuzen, emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna izan zen. Tolosaldeko hainbat herritan elkarretaratzeak eta ekitaldiak egin zituzten eta ikaztegi-gietan, esaterako, elkarretaratzea egin zuten, Udalak deituta. Kasu honetan, 20 lagun elkartu ziren.

### Gurasoei zuzendutako hitzaldia, gaur

**BIDEGOIAN** » Gaur, Bidaniako gurasoen lokalean gurasoei zuzendutako hitzaldi bat izango da. Kasu honetan, *Ikasteko zailtasunak* izenekoa antolatu du Bidegoiango Guraso Elkarteak. Eguerdian antolatu dute, haurrak eskolan dauden garaian, hain zuzen ere. 14:30ean hasiko da hitzaldia.

**euskaraz bai**

pauso bat harago

Kontseiluaren 10. urteurrena

abenduak 13 BEC 18:00

Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzeko: [nierebanoa.com](http://nierebanoa.com) webgunean

902 82 02 40 telefonon

laguntzailea hitza

KONTSEILUA

**LALA ZAPATA DENDA**

- Emakume, gizonezko eta umeentzako zapatak
- Bitxiak, poltsak, gerrikoak, diru-zorroak...
- Aukera handiak prezio merkean

Gernikako arbola, 3 behea • Tolosa  
Tel.: 943 65 34 14 • 636 85 62 27 • 661 22 08 70

# Zortzigarrenez, Sella ibaia jaitsi du igerian Carlos Peñak

**Igeriketa** » Bere marka hobetu du igerilariak, 12 minutu gutxiago behar izan baitzituen ibilbidea amaitzeko.

## ERREDAKZIOA

Beste behin ere, Sella ibaia igerian jaisteko erronka ezarri zuen Carlos Peña igerilari tolosarrak. Eta beste behin ere, zortzigarrenez, erronka hori bete du.

Pasa den asteburuan egin zituen 19 kilometro igerian, bizkarrez, eta 2 ordu eta 28 minutu behar izan zituen helmugara heltzeko. Denbora honekin bere marka pertsonala ere hobetu du Tolosakoak, 2005ean ezarritako marka baino 12 minutu gutxiago erabili baitzuten.

## «Betikoa, baina desberdina»

Behin ibilbidea amaituta pozik azaldu zen Carlos Peña. Berak azal dutakoaren arabera, «aurten-go jaitsiera hau desberdina izan da; ura hotze zegoen baina ez espero bezain izoztua». Hala ere, aurten-goan ibaian behera abiadura handian zebiltzan egur zatiek arrisku-tsua bilakatu zuten jaitsiera, baita zeuden ur zurrumbilo ugari ere. «Hegatsekin joanagatik ere oso

zaila izan zen hauek igarotzea, ibaia udan baino arriskutsuagoa zegoen».

## Laguntza, ezinbestekoa

Igerilariarekin batera, hiru piraguista aritu ziren abenturan, baita beste bi laguntzaile ere, lurreangerratu zirenak. Hauen laguntza behar-beharrezkoa dela azaldu zuen Peñak.

Haiek ere euren iritzia eman zuten abenturaren amaieran. «Sella ibaia udan jaitsi eta orain udazkenean jaitsi ez du zerikusik, arrisku askorekin egin dugu topo eta olatuak ere oso bizkorak ziren; lortpen handia da».

Dagoeneko hurrengo erronka du buruan Peñak, abendurako aurteikusi duena Nervion ibaiaren uretan.



Arazorik gabe lortu zuen Peñak Sellaren jaitsiera burutzea. HITZA

## Kutxa Inbertsio-Irtenbideak



## Diru babestua.

Egunetik egunera, gero eta jende gehiagok erabakitzen du **Kutxaren Inbertsio-Irtenbideen** aterkipean babestea. Zure egoera pertsonalari gehien egokitzen zaion irtenbidea bilatzen lagunduko dizugu, zure dirua erabat babestuz.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 kutxa

## 'The dead girl' filma izango da ikusgai zine-forum saio berrian

**Kultura** » Ohi bezala, bi saio izango dira, 19:15ean lehenengoa eta 21:45ean bigarrena, Leidor aretoan.

## ERREDAKZIOA

Ostegunero bezala, zine-forumak saio berri bat prestatu du gaurko. Hain zuzen ere, *The dead girl* filma izango da ikusgai, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Karen Moncrieff zuzentutako misteriozko filmak pertsona talde baten inguruko bost istorio kontatzen ditu. Ageriko erlaziorik ez duten arren, eraillketa baten inguruan mugituko diraguztiak.

**Zuzenketa.** Bilgune Feministatik A25 ari begira igorri zuten iritzi-artikuluko tituloa gaizki idatzia agertu zen astearteko alean. Tituloa «Nazkatuak gaude! Emakumeok Autodefentsa!» zen eta ez, «Nazkatuak gaude! Emakumeok Autodefentsan!».



Esperanza Latina taldeak emanaldia eskainiko du abenduaren 7an. I. URRUTIA

## Bihar emango diote hasiera Kultur Aste oparoari

**Larraul** » Lehen asteburu honetan bertso bazkaria eta azoka izango dira, besteak beste; datorrenean Ekuador izango da nagusi.

### ERREDAKZIOA

Urteroko moduan Larraulen Kultur Astea antolatuko da. Bihar, hilak 28, hasiko da eta abenduaren 7ra arte luzatuko da.

Lehen asteburu honetan ekin-tza desberdinak izango dira; bertso bazkaria, azoka eta ibilaldia, besteak beste. Larunbatean eta igandean, gainera, 16:30etik 18:00etara, Larraulgo baserrien argazki erakusketa ikusi ahal izango da herriko museoan.

Datorren asteburu, aldiz, abenduak 6 eta 7, Ekuadorri eskaini diote eta herrialde honetako hainbat ekintza izango da; dantzak, bideo emanaldia, erakusketa...

### » EGITARAUA

#### Azaroak 28, bihar

- 17:00. Umeentzako merienda Katillu-Txulo elkartearen, ondoren eskulanak egingo dituzte.
- 20:00. Larraulgo argazki diaporama, Kultur Etxean.
- 22:00. Mus txapelketa Katillu-Txulo elkartearen.

#### Azaroak 29, larunbata

- 12:00. Larraulgo Eskolaren 2008ko irailean izandako inaugurazioaren bideo emanaldia.
- 14:00. Bertso bazkaria. Joxe Agirre eta Amets Arzallusekin.
- 18:00. Pello Añorga ipuin kontalaria Kultur Etxean.
- 19:00. Triki-poteoa.

#### Azaroak 30, igandea

- 9:30. Ibilaldia herriko baserrietan barrena.
- 10:00. Azoka herriko produk-

tuekin. Baserrietako genero eta larrauldarren jardueren erakusketa.

- 16:00. Pelota partidak.
- 18:00. Talo eta gatzain-jatea Katillu-Txulo elkartearen.

#### Abenduak 6, larunbata

- 10:00. Ekuadorreko Andeatoko artisau erakusketa, Kultur Etxean.
- 17:00. *Latitud Cero* bideo emanaldia, Kultur Etxean.
- 19:00. *Que tan lejos* filma, Kultur Etxean.
- 21:00. Afari ekuatoriarra Katillu-Txulo elkartearen.

#### Azaroak 7, igandea

- 10:00. Ekuadorreko artisau erakusketa zabalduko da.
- 16:00. Ekuadorreko dantzak Esperanza Latina taldearekin.
- 18:00. Diapositiba emanaldia eta mahai-ingurua.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Laburrak

### Gabonsari banaketa abenduaren 1etik 22ra

**IBARRA** • Ibarra erretiratuen eta pentsiodunen Bizi-Nahi elkarteak zuzendaritzak jakinarazi duenez, abenduaren 1etik 22ra banatuko dituzte gabonsari boltsak bazkideen artean. Gabonsariekin batera 2009ko urtarrilaren 11n egingo duten taldeko ohiko Batzar Orokorreko gonbidapena ere banatuko dute. Boltsa jasotzerako garaian bazkide txartela erakutsi beharko da.

### Eguesen urtebetetzea dela-eta argazkia igandean

**ELDUAIN** • Ana Belen Egues euskal preso elduindarraren urtebetetzea iristear dagoenez igandean, hilak 30, herritar talde batek argazkia atera behar dutela iragarri nahi izan du. Hitzordua 12:30ean izango da Elduaingo Urdelak Biltokiaren atarian. Era berean, herritar, senide eta herritarrak ez diren lagun guztiak bertaratuta eta argazkian ateratzera gonbidatzen dituzte.

### 78. eta 79. urteetan jaiotakoen afaria

**IBARRA** • Ibartar talde batek 1978. eta 1979. urteetan Ibarra jaiotako afaria ari da antolatzen. Afaria abenduaren 20an izango da herriko Eluxka jatetxeko sagardotegian eta izena emateko epea abenduaren 13an itxiko dute. Interea dutenek edota informazio gehiago behar dutenek 688 637 113 telefonora dei dezakete. Era berean, aipatu urteetan jaiotakoek parte hartzeko deia egiten diete.



## Hiru gazte anoetarrei elkartasuna

**ANOETA** • Atzo elkarretaratzea egin zuten ezker abertzaleak deituta, Ertzaintzak larunbatean herriko hiru gazte atxilotu izana salatuz. Bertan, 60 lagun inguruk hartu zute parte *Gazte aske! Irabazi arte!* lelopean, hiru gazteei babesa eta elkartasuna adierazteko. Segik sinatutako kartelak itxastea egotzita atxilotu zituz-

ten 17 urteko gaztea eta 22 urteko beste biak. Hala, larunbatean bertan aske utzi, eta epaileak deklaratzera noiz deituko zain daude. Ezker abertzaleak salatu zuenez, «ez da polizien jazarpena jasaten dugun lehendabiziko aldia, eta ekintza hauekin euskal gazteria beldurdu nahi dute». N. URRIZU

## Gutunak

### Azaroak 28 dipertsioaren aurka Ibarra

Hilabeteko azken ostiraletan preso eskubideen alde antolatzen diren mobilizazioak izaera berezia hartu du Ibarra oraingoan. Izan ere, Udaletxeak dipertsioaren alde egindako hautua salatuko da *Udaletxe honek dipertsioa bultzatzen du lelopean* burutuko den manifestazioarekin.

Arrazoia, argia: preso senideek euren bidaia luzeetarako jasotzen zituzten diru laguntzak bertan behera utzi zituzten uztailek 29an ezkutua egindako udalbatzan, bezperan, preso senide eta lagunekin bildu zirenean halakorik egingo zutenik ukatu ondoren. Gutun hau sinatzen dugunok

preso politiko ohiak garenaz ederki ezagutzen ditugu dipertsioaren ondorioak. Aste osoan lanean egon ondoren asteburuetan bidaia amaigabeetan ibiltzera behartuta egon dira gure senideak; zenbait bisita astean zehar egin behar izan dituzte jai egunak galduz; istripurik izango ote zuten kezkatuta sabela hutsa eta mingaina lehorratzen genuen harik eta senideak atetik sartzen ikusi arte. Hori dena gutxi ez eta zigor ekonomikoa jasan behar gainera.

Madrilen preso dagoenaren senideak 1.000 kilometro egin behar ditu astero, Andaluzian dagoenarenak 2.000. Kendu langile baten soldatetik bidaia hauek eragiten dituzten gastuak. Dipertsioaren aurka omen dauden PNV, EA eta

IU-Aralarrek aho batez onartu zuten herriko preso senideen bizikar gainean ipintzea gastu guzti hauek, aspaldi Udaletxean hartu den erabaki miserabilearenekin.

Dispersio politika kriminalaren aurka hitzez baino ekintzez egon behar da bereziki, eta kasu honetan ekintzak ez doaz hitzekin bat. Guzti horrengatik bat egiten dugu bihar, arratsaldeko 19:30ean, Ibarra sarreratik abiatuko den dipertsioaren aurkako manifestazioarekin eta dei egiten diogu preso senideen ekoerarekin kezkatua dagoen herritar orori bertan parte hartzera.

**Eider Ijurko, Ekaitz Aramendi, Jon Mintegiaga eta Eñaut Garmendia.** Ibarra Euskal Preso Politiko ohiak.



Patxi Marta ezkerrean eta Erdian You Xuande maisu handia. Txinatarrak ez da Leitzan egongo baina bai Marta. HITZA

## Munduko txapeldunaren eskutik Tai-Chi-a gertutik bizitzeko aukera asteburuan

**Leitza** » Patxi Marta munduko txapeldunak eskainiko du Tai-Chi ikastaroa kiroldegian etzi eta etzidamu.

### ASIER IMAZ

Wushu-Kungfu Euskal Federakundeak eta Aurrera Kirol Elkarrekin Tai-Chi ikastaro trinkoa antolatu dute Leitzan. Ikastaroa asteburuan izango da kiroldegian, hau da, etzi eta igandean.

Parte hartu ahal izateko nahikoa edukitzea edo Tai-Chi hau zer den jakin nahizatea. Herri arteko aukera izango duten bezala, kanpotarrek ere ez dute aitzakiarik izango.

### Ikastaro irekia: lo egiteko aukera eta guzti

Antolatzaileen esanetan, ikastaroa guztiz irekia izango da, hau da, nahi duenak edukiko du izena emateko aukera: «Jendea beldurrik gabe hurbiltzeko eskatuko genioke; 3.000 urtetako jakinturia gertutik ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen baitu ikastaro honek».

Matrikula 5 euro kostatzen da eta izena emateko edo informazio gehiagorako 618 83 00 95 telefono zenbakira deitu beharko da. Aipatu, ikastaroa doan izango dutela Aurrera Kirol Elkarrekin.

Jadanik Algorta (Bizkaia), Gasteiz eta inguruko herrietatik jendea izena eman duela aipatu dute antolatzaileek. Bi egunetako ikas-

taro honetan parte hartu nahi duenak, lo egiteko aukera ere edukiko du kiroldegiko gimnasioan.

### Ordutegiak eta irakaslea

Patxi Martak eskainiko du bi egunetako ikastaroa kiroldegian, 2007an Txinan Munduko Txapelketa irabazi zuen gasteiztarrek hain zuzen ere.

Azaroaren 29an, etzi, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara arituko dira Tai-Chi formak lantzen. Igandean, azaroaren 30ean, 10:00etatik 12:00etara.

Barne oreka, lasaitasuna, auto-kontrola eta norberaren onuraren murgiltzeko aukera bikaina antolatu dute asteburuan Wushu-Kungfu Euskal Federakundeak eta Aurrera Kirol Elkarrekin.

## Ametsa egi bihurtuz



### » Herrira begira

**Aimar Sagastibelza**  
Futbol jokalaria

Hiru hilabete buru-belarri entrenatzen eondu ondoren aiatu zait hainbeste seitzin nun sarie; Clementek entrenatzen don Murtzian kontrako partidurako deialdin sartu naiz! Ezuste ikaragarria da, ta neretzako animo itzela. Nolabate esanda, indako lanak bere fruitue eman dola iruitzen zait. Gañea Izquierdo bezelako jokalarik deialditik kanpo gelditu diela kontutan hartuta are balore handigoa hartzen dohonek.

Autobusen goaz Murtziara biden eta hementxetik hasiko naiz idazten. Zoritxarrez aste nahiko konplikatue izandu da pertsonalki, buruhaustez bete. Izan e, Nastic-ek neguko fitxaketan merkaturik hiru jokalarik fitxatzeko erabakie hartu dola azaldu da prentsan eta hoitako bat nere posizioan jokatzen dona. Ondorioz, jokatzen aiez gan hiru jokalarik zeditzeko asmoa omen dau, kazetarin arabera. Informazio hau dela ta, ezin izan-

du dot ebitatu hortan pentsatzea eta neurri baten nahiko deseroso sentitutu naiz. Beño beno, futbola holaxe da ta ezta komeni gehiegi pentsatzea, ongi entrenatzen seitztea besteik ez baitau nere eskutan.

Aixtin bukatu du partidue eta berriz e autobusen nau. Zalle itten ztaiz hitzez adieraztea momentu hortan sentitzen dotena, bigarren mailan debutatu baitot. 16 minutu faltan atea naiz, partidue 1-1eko emaitzakin zeola. Jokalari bat gutxiokin giñeuden eta 14.000 ikuslen presioa latza zen. Hoi esatea aski da zeñien momentu konplikatun atea behar izandu naizen adierazteko. Beño beno, nahiko ongi sentitutu naiz eta emaitzai eustea lortu du, nahiz eta gaurkoan e 2 puntu galdu dittun.

Esan bezela, neretzat ikeragarriko satisfazioa da momentu hau bizitzeko aukera izatea, eta hau lortu ahal izateko in behar izandu dittoten lanak eta sakrifizioak etortzen tzaizkit gogora. Baita hau bizitza posible in duen hainbaten laguntza (batez e familie, eta launek eba). Momentu askotan penttsatu izandu dot ea egitan mezi ote zun itten ai nitzanak, ba gaurkoan jakin dot erantzune baiezkoa zela.

Hemendik aurrea pasa behar dona pasako da, beño behintzat debutatu izanan ohore eta zapore goxo horrekin gelditzen naiz.

## Bihar Jorge Oteizaren inguruko solasaldia

**Leitza** » Liburutegian Oteizaren inguruan ariko dira berrikeren Jabi Moreno eta Xabier Laka 19:00etatik aurrera.

### A. IMAZ

Leitzako liburutegiko arduradunek *Jorge Oteiza 1908-2008* izeneko hitzaldia antolatu dute bihar 19:00etan liburutegian bertan.

Leitzan bizi den Jabi Moreno

eta Xabier Laka eongo dira hizlari bezala. Biak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak eta Oteizaren inguruan adituak: tesi bat egin dute elkarlanean eta *La colina vacia* liburua argitaratu dute beste bi kiderekin batera.

### Hitzaldia baino, solasaldia

Oteizaren inguruko argazkiak ikusteko aukera ere eongo da biharko solasaldian, izan ere, hitzaldia baino gehiago solasaldi moduko tertulia izango da bihar.

## Laburrak

### Gaztain-jatea bihar egin beharrean gaur egingo da

**ZIZURKIL** • Elizpe Jubilatutako Elkarteak azaroaren 28rako, biharko, antolatu zuen gaztain-jatea gaur egingo dutela jakinarazi dute. Ondorioz, gaur 17:00etan izango da gaztain-jatea Jubilatutako Elkarteak.

### Abesbatza topaketa etzi San Migel elizan

**LEITZA** • Asketa Abesbatzak jakinarazi duenez, azaroaren 29an, etzi, 19:30ean Leitzako San Migel elizan Nafarroako Mendialdeko Abesbatzen topaketa ospatuko dute.

### Gabonetako loteria erosteko azken aukera

**LEITZA** • Aurrerak bere bezeroentzako, Gabonetako loteria salgai jarri du, bakoitzarentzat 2 dezimo gehienez eta gaur erosteko aukera eongo da. Azken eguna edo muga bihar izango da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



5°  
1°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 9°  
HOTZENA 4°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzodon@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialea:** 687 410 034. alegialea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Azoka

■ **Tolosa.** Liburu Azoka San Franzisko pasealekuan goiz eta arratsaldean.

### Erakusketa

■ **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketa Abraham Olano kiroldegian.  
■ **Tolosa.** Ainhua Arregi, Amaia Aramendi eta Arrate Iturbe artistek *Iparretik Hegora buruz behera* argazki erakusketa jarri dute Itaie tabernan, Peru, Argentina eta Mozambiquen ateratako irudiekin.

### Deialdiak

■ **Alegia.** Bertso-poteoa 19:30ean Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariekin eta Eider Zubillaga eta Maider Zabala trikitilariekin; 21:00etan bertso-afaria Intxurre elkartearen. Txartelak Kultur Etxean salgai 17 euroren truke.  
■ **Anoeta.** Alkartasuna Biltokiak jubilatuen meza 12:30ean eta bazkaria antolatu du Alkartasuna biltokiak hilaren 27an Zuloaga txiki jatetxean, elkarrearen XVI. urtemugan eta Milagrosa delako. Izen-ematea, elkarrean 22 eurotan (bazkide ez direnek, 25).  
■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkarrearen 25. Mendi Astea. Hitzaldiak eta proiektzioak izango dira egunero Gurea zineman.  
■ **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren Setik 8ra izango da Zerkausian. Afariak Setik 7ra eta bazkaria 6an, 7an eta 8an. Erreserbak (40 euro) 943 697413 telefono zenbakian edo [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbidean.

■ **Tolosa.** Milagrosaren bederatziruena lurreamendi Egoitzako kaperan, 08:00etan astegunetan, 09:00etan jaiegunetan eta arratsaldeetan, 16:00etan. Mezaren aurretik errosarioa errezatuko da, gaur da azken eguna.  
■ **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria abenduaren 13an Maite Amonariz kapitaina omentzeko eta argutzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.  
■ **Tolosaldea.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatu duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8).

### Zinema

■ **Alegia.** *Flores de otro mundo* (Ciar Bollain) izango da. Aurretik Nerea Elias adituak sarrera bat egingo du eta inmigrazioaz ariko da. Olga Jimenez alegiar etorkina ere izango da bere esperientzia kontatzeko. 19:30ean izango da Kultur Etxean.  
■ **Tolosa.** *The dead girl* filma eman go dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Julen eta Iker Esnaola (Belauntza).** Ikerrek gaur 5 urte eta abenduaren 5ean Julenek 7. Zorionak eta muxu asko etxeko guztien partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.

### AZAROAK 28, OSTIRALA

*Garraxi Ixila* antzezlan (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahotsa* liburuaren oinarritutako obra.  
**Ordua:** 22:00  
**Lekua:** Leidor Zinema

### ABENDUAK 1, ASTELEHENA

*1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldea eta Leitzaaldean* liburuaren aurkezpena, Mikel Errazkin Agirrezabala eta Joxemi Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztientzat.  
**Ordua:** 20:00  
**Lekua:** Tolosako Zerkausia

### ABENDUAK 2, ASTEARTEA

*Gerra Zibila Tolosaldean* hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Juantxo Agirre Mauleonen eskutik.  
**Ordua:** 20:00  
**Lekua:** Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK  
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN